

Ebazpena, 2025eko abenduaren 1ekoa, UPV/EHUko Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordearena, UPV/EHUko teknikariek, kudeatzeko eta administrazio eta zerbitzuetako langileek euskara ikasteko deialdian emandako eta ukatutako dirulaguntzen zerrenda argitaratzen duena.

2025eko urriaren 17an Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak UPV/EHUko **teknikariek, kudeatzeko eta administrazio eta zerbitzuetako langileek** euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia eman zuen argitara (2025eko deialdia).

Igaro da 10 laneguneko epea aurkeztu beharreko agiriak zuzentzeko edo faltan zeudenak aurkezteko, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordeak 2025eko azaroaren 4an emandako erabakian zehaztutako epea.

Hori guztia kontuan hartuta, ondokoa

ERABAKI DUT:

Lehena:

UPV/EHUko teknikariek, kudeatzeko eta administrazio eta zerbitzuetako langileek euskara ikasteko xedez diru-laguntzak emateko 2025eko deialdia ebaztea.

Resolución de 1 de diciembre de 2025 de la vicerrectora de Euskera y Planificación Lingüística de la UPV/EHU, por la que se publica la relación de ayudas concedidas y denegadas en la convocatoria para el aprendizaje del euskera por parte del personal técnico, de gestión y de administración y servicios de la UPV/EHU.

El 17 de octubre de 2025, el Vicerrectorado de Euskera y Planificación Lingüística publicó la convocatoria de subvenciones para el aprendizaje de la lengua vasca por parte del **personal técnico, de gestión y de administración y servicios** de la UPV/EHU (Convocatoria año 2025).

Transcurrido el plazo de 10 días hábiles habilitado en la Resolución de 4 de noviembre de 2025 de la vicerrectora de Euskera y Planificación Lingüística de la UPV/EHU para subsanar la falta o acompañar los documentos preceptivos.

En su virtud,

DISPONGO:

Primero:

Resolver la convocatoria correspondiente al año 2025 para la concesión de subvenciones para el aprendizaje de la lengua vasca por parte del personal técnico, de gestión y de administración y servicios de la UPV/EHU.

Bigarrena:

I. eranskina argitaratzea, bertan jasota onartutako eta ukatutako dirulaguntzen zerrenda.

Hirugarrena:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka, nahi izanez gero, interesatuak berraztertze errekurtsoa aurkez diezaioke Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordeari hilabeteko epean, erabakia hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango du administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegian, bi hilabeteko epean, aipatutako egunetik kontatzen hasita.

Leioan, sinadura digitalaren datan.

Segundo:

Publicar en el siguiente anexo I el listado de subvenciones concedidas y denegadas.

Tercero:

Contra la presente resolución, que agota la vía administrativa se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante la vicerrectora de Euskara y Planificación Lingüística, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación, o recurso contencioso administrativo ante la jurisdicción de lo Contencioso-administrativo que corresponda en el plazo de dos meses contados de igual forma.

En Leioa, a la fecha de la firma digital.

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea
La vicerrectora de Euskara y Planificación Lingüística

Izptua.: / Fdo.: Miren Igone Zabala Unzalu